

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 28ko 708/2017 Foru Agindua, ardoa eta edari hartzituen fabrika eta zerga gordailuetako eragiketen aitortpena egiteko 553 erdua eta horien kontabilitatea biltzen duen euskarri informatikoa modu telematikoa aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzekoa**

Abenduaren 23ko 110/2008 Foru Dekretuaren bidez arautu da aitortpenak eta autolikidazioak telematikoki aurkezteko baldintza eta betekizunen marko orokorra, eta ezarri da bide horretatik aurkeztu beharko direla Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehazten dituen aitortpenak.

Aipatutako Foru Dekretua garatuz, otsailaren 3ko 39/2010 Foru Agindua onesten da; horren bidez, zergapeko eta eredu jakin batzuen kasuan, internet bidez modu telematikoa aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri dira.

Martxoaren 15eko 205/2012 Foru Aginduak fabrikazio zerga berezien kargapeko eredu jakin batzuk onetsi ditu eta zenbait kudeaketa arau eguneratu ditu. Eredu horien artean 553 erdua eragiketen aitortpena dago, ardo eta edari hartzituen gaineko zergari buruzkoa, fabrikatzaile eta zerga gordailuetako titularrek aurkeztu beharko dutena ardo eta edari hartzituen gaineko zergaren tasa zero den bitartean.

Modu berean, fabrikazio zerga bereziak erregulatzen dituen araudiak zerga horiek hizpide dituzten produktuen kontabilitatea eramateko betebeharra ezarri du eta, fabrika eta zerga gordailuen kasuan, euskarri informatikoa duen kontabilitate sistema baten bidez beteko da.

Goiago deskribatu diren eginbehar formalen betetzea errazteko helburuarekin, egokitzen da Internet bidezko bide telematikoa erabilera derrigorrezko egitea, bai ardo eta edari hartzituen fabrika eta zerga gordailuetako eragiketen aitortpenerako 553 erdua, baita horien kontabilitatea jasotzen duen euskarri informatikoa aurkezteko ere.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

##### 1. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa

Bat. Foru Agindu hori ardo eta edari hartzituen gaineko zergaren 553 erduari aplikatuko zaio. Ardo eta edari hartzituen fabriketan eta zerga gordailuetan egiten diren eragiketen aitortpena.

Bi. Era berean, 553 erdua eragiketen aitortpenarekin batera aurkeztu behar den kontabilitateari (euskarri informatikoa) aplikatuko zaio.

##### 2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa

Ardo eta edari hartzituen gaineko zergaren kargapeko fabrika eta zerga gordailuen titularrek aurreko artikuluan aipatutako eragiketen aitortpena eta kontabilitatea euskarri informatikoa aurkeztuko dituzte, bide telematikoa nahitaez, internet bitartez.

### 3. artikulua. Internet bidez modu telematikoan aurkezteko prozedura

Bat. Aurreko artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, horietan zehaztutakoaren arabera, aitorpena eta kontabilitatea euskarri informatikoan internet bidez modu telematikoan aurkeztekoan, honako baldintza hauek bete behar dira:

Aitorpena egin behar duen pertsonak/entitateak identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) eduki eta Arabako Foru Ogasunaren Zergadunen Erroldan sartuta egon behar du aitorpena aurkeztu baino lehen.

Halaber, subjektu pasiboak edo, hala badagokio, baimendutako profesionalak, AFaren Egoitza Elektronikoko (DiputacionDigital) erabiltzaile gisa sarbidea izan behar du. Egoitza Elektroniko hori 26/2011 Foru Dekretuak, apirilaren 5eko Diputatuen Kontseiluarenak, eta 74/2011 Foru Dekretuak, azaroaren 29ko Diputatuen Kontseiluarenak, arautzen dute.

Bi. Hona hemen aitorpena aurkezteko prozedura:

Erabiltzailea (aitortzailea edo baimendutako langilea) AFaren Egoitza Elektronikora konektatuko da.

Zerbitzuak erabili ahal izateko, ziurtagiri elektronikoaren edo itsasontzi jokoaren bidez sartu beharko da AFaren Egoitza Elektronikora, edo hartara sartzeko ezarritako beste edozein sistemaren bitartez. Horrez gain, aipatutako egoitzara sartzeko ezarritako betekizun teknikoak betetzen dituen ordenagailua izan beharko du erabiltzaileak.

553 eredia modu telematikoan aurkezteko, inprimakian adierazitako datuak osatu eta helarazi beharko dira. Inprimakiak onartutako ereduari jarraituko dio eta AFaren Egoitza Elektronikokoan egongo da eskuragarri.

553 eredian oinarritutako inprimakiko datuak osatu ondoren, kontabilitatea jasotzen duen euskarri informatikoa erantsi beharko da, eta, ondoren, aitorpena igorri. Aitorpena onartuz gero, hartu agiria bidaliko da bueltan. Han, besteak beste, aurkezpen zenbakia, eta aitorpena zer egun eta ordutan aurkeztu den adieraziko da. Aurkezpena baztertuz gero, hautemandako akatsen azalpena agertuko da pantailan. Kasu horretan, jasotako inprimakian dauden akatsak zuzendu beharko dira, edo, akatsa beste zerbaitek eragin badu, berriz ere aurkeztu beharko da aitorpena.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean, eta honako hauei aplikatuko zaie: 1. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan zehaztutako euskarri informatikoan aurkeztutako aitorpenei eta kontabilitateari, baldin eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragiketak jasotzen badituzte.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 28a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*  
**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**